

# AINTZAKO FILOSOFIAREN AMAIERA

- 
1. INPERIOAREN GARAIA ETA KRISTAUTASUNAREN SORRERA
  2. PLOTINO ETA NEOPLATONISMOA
- 

## 1. INPERIOAREN GARAIA ETA KRISTAUTASUNAREN SORRERA

**Filosofia helenisitikoa** Erromatar Errepublika garaian garatu zen:

- Atenas hirian biltzen ziren erakunde filosofikoak erromatar Inperioko zenbait hiritara joan K.o. I. Mendetik aurrera.
- Eskola filosofikoak → platonismoa, aristotelikoa, epikurearra eta estoikoa + erakunde horietan parte hartzen ez duten zinikoak eta eszeptikoak.
- III. Mendean mugimendu filo berri bat sortu: neoplatonismoa. Autoreak: Plotino eta Porfirio.
- Eskola filosofikoen sakabanatzeak ondorioak irakaskuntza metodoetan: irakaskuntza gehiena ahozkoa; filosofoen testuak lantzen ziren (Platon, Aristoteles...) programa zehazt baten arabera eta irakasleak gidaturik. Ondorioz, eztabaida filosofikoak oso urriak
- Filosofo pagano garrantzitsuenak → Zieron, Seneka, estoikoak (Epikteto eta Marko Aurelio), epikurearra (Lukreazio), eszeptikoa (Sexto Enpiriko) eta neoplatondarrak (Plotino eta Porfirio).

Testuinguru honetan sortu zen kristautasuna. **Kristautasunaren lantze doktrinala:**

- Augustoren garaian jaio zen Jesus Nazaretetokoa, eta Tiberio enperadorearen garain hil gurutzean.
- Bere doktrinaren aurrekariak: pentsalari judu eta grekoen artean. Bere doktrina Judu-Biblian oinarritzen da. Honen baitan tesi hauek onartu:  
*Jainko bat eta bakarra dago, Jainkoak ezerezetik sortu zuen errealitatea, herri judutarrari lege-jainkotiarra eman zaio, Mesias askatzailea etorriko da, eta amaieran Jainkoaren epaiketa unibertsala egongo da.*
- Filosofo grekoekin zenbait ideia antzeko: gizakiarekiko jarrera eta bizitza aszetikoa adib.
- Jesusen doktrinan bi ezaugarri nagusi: 1. Jesusek mesias gisa hartu bere burua 2. Mundu guztiari hitz egin dio, ez soilik herri juduari.
- II. eta III. Mendean → Paulo Tarsokoak eraikitako Eliza diziplinatu baten eskutik Erromatar Inperioan finkatu zen kristautasuna.
- Elizako gurasoek erlijio berriaren lantze doktrinala osatu zuten. (filosofiarekiko jarrera ezberdinak izan zituzten). Eliz gizonen artean hauek garrantzitsuenak: II. mendeko Klemente Alejandriakoa eta Origenes + III. Mendeko Basilio Handia, Gregorio Nazanziokoa eta Gregorio Nisakoa.
- Doktrina lantzeko eta garatzeko 1. ahalegina 325.urtean izan zen Nizeako Kontzilioan, arrianismoa eta gnostizismoa betirako abandonatu zelarik.

## 2. PLOTINO ETA NEOPLATONISMOA

Aintzako garaiko azken filosofia paganoa → Neoplatonismoa, gehien bat Plotinoren eskutik.

- Platonen jarraitzailea, beste eduki batzuk gehituz: aristotelesen, pitagorikoen eta estoikoen bidez.
- Obra nagusia → *Eneadak* (sei ikerlanek osatua). Obra honetan filosofia tradizionalaren gai ezberdinak jorratzen ditu (adib: metafisika, logika, epistemologia, etika...) sistema trinko eta oso konplexua osatuz.

- Sistemaren abiapuntua → *bata*. Platonen sistemako ongiaren parekidea. Bata errealtatearen eta balio guztien oinarria da, baina hauek baina harantzago doa.  
*Bata* erabateko batasuna da, eta bere jarioaren bidez errealtatearen maila guztiak sortzen dira. Lehenengo jarioan *Batak* egiten duen bere buruaren inguruko hausnarketaren bidez *Gogoa- Nousa* jariatzen da. Intuizio intelektual baten bidez Gogoak bere Ideiak ezagutzen ditu, ezagutza horretatik *Munduko Arima* jariatzen delarik (errealtatearen ordenaren eta edertasunaren sortzailea dena). Munduko Arimaren zatiak dira Arima banakoak. Bizitza bertutetsua arimaren bidezko garbiketa-prozesua da. Prozesu honetan jakintsuek materiarekiko duten loturatik askatzen dira eta *Jainkoarekiko Itzulera* lantzen du.
- Batak, Gogoak eta Munduko Arimak mundu ulergarria osatzen dute. Arimaren isla Natura, mundu fisikoa da. Sistemaren azken maila materia da.
- Plotino hil ostean, Porfiriok argitaratu zuen bere obra + biografia. Ikasle batek Atenaseko eskola neoplatonikoa sortu zuen, jarduten jarraitu zuena 529. urtera arte, Justino enperadoreak itxi zuelarik.
- Azken eskola greko eta paganoa izan zen → bere eragina nabarmena da kristautasunaren doktrinan eta Erdi aroko filosofian.

## ERDI AROKO FILOSOFIA

### I. ERDI AROKO FILOSOFIAREN SORRERA: AGUSTIN HIPONAKOA

- |  |
|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. FILOSOFIA ETA KRISTAUTASUNA</li> <li>2. AGUSTINEN TEOLOGIA</li> <li>3. ARIMAREN DOKTRINA</li> <li>4. EZAGUTZA ETA ZORIONTASUNA</li> <li>5. GAITZA, ASKATASUNA ETA GRAZIA</li> <li>6. JAINKOAREN HIRIA</li> </ol> |
|--|

#### 1. FILOSOFIA ETA KRISTAUTASUNA

Filosofia kristaua → kristau-agerkundearen inguruan pentsalari batzuek egindako lanketa arrazionala.

- Bi tesi nagusi: a) Bada Jainko abt, zeina unibertsoaren sortzailea den, pertsonala den eta orojakilea. b) Gizakia Jainkoaren irudira egina dago. Bere ezaugarri garrantzitsuena arima hilezkorra da, eta bere azken helburua Jainkoa.
- Filosofia kristauaren helburua tesi horiek arrazionalki babestea da. Horretarako sistema filosofikoez baliatuz, adib: neoplatonismoa.
- Kristau erlijioak 3 iturri: Biblia judutarra, Jesus eta greziar filosofia. Honetan oinarritu eliz-gurasoak eta apologistak.
- Eliz gurasoek filosofo paganoen aurka egiten zuten, batzuek jarduera filosofikoa kondenatzen zutelarik eta beste batzuek baliatzen zutelarik kristautasunaren oinarri razionala ezartzeko → Jarduera filosofiko horri: Patristika.
- Patristikan ezin da banatu pentsamendu arrazionala eta erlijioa. Adibide argiena: Agustinen "credi ut intelligam" (sinisten dut ulertzeko); arrazoiak eta fedea elkarren beharra dute: kristauak egiak onartu behar ditu eta ondoren ulertzen saiatu.

- Patristikak aztertzen dituen gaiak:
  1. Fedea eta arrazoiaren arteko lotura, fedeari lehenetasuna emanez (goian azaldu bezala).
  2. Jainkoaren existentzia eta atributuaren inguruan → existentzia arrazionalki frogatzen saiatzen dira, eta atributuak aztertzen dituzte, hemen gehien bat *teologia negatiboa* garatu (hau da, Jainkoa zer ez den zehaztu).
  3. Unibertsoaren kreaioa eta sorrera → aurretik pentsatzen zenaren kontra, *ezerezetiko kreaioa* babesten dute, kreaioaren bidez aztertu natura eta gizakia bera ere.
  4. Gizakia zer den eta dagokion teokiaren inguruan → bi tesitan oinarritzen dira: gizakia Jainkoaren irudira sortua da, eta gizakiaren ongia eta zoriontasuna Jainkoam aurkitzen da.
- Patristikaren azken filosofo Agustin Hiponakoa, kristautasunare historian eragin handiena izan duena.

## 2. AGUSTINEN TEOLOGIA

- 3 printzipio onartu bere teologiaren abiapuntutzat:
  1. Jainkoa da unibertsoa sortu duen izaki gorena
  2. Jainkoa da guztiaren arrazoia
  3. Jainkoa ontasun absolutua da

Beraz, Agustinen pentsamenduan Jainkoa da ontologia, epistemologia eta etikaren gailurra.
- Jainkoaren existentzia ebidentea da, baina frogatzen saiatzen da. Froga nagusia: *betiereko ideiena* da (*Aukeramen askeari buruz* obran agertu).  
Froga honetan gizakia bere barrutik abiatu, giza arimaren egia betiereko, unibertsal eta beharrekotik. Hau, ezaugarri horiengatik, ezin da gizatiarra izan, betiereko, unibertsal eta beharrezkoa den izaki batetik etorri behar dira: Jainkoa.  
 Behin frogatuta, bere atributoak zehaztu nahi ditu, baina hau zailagoa da giza arrazoimenaren mugengatik. Hemendik sortu teologia negatiboa: "Jainkoa ulertuko bazenu ez litzateke Jainkoa izango". Baina bada ezagutza positibo bat posible: Jainkoa izaki gorena, ezin hobea, betierekoa, bakarra, orojakilea, ontasun absolutua... da.
- Jainkoa da gauza guztien arrazoia → Platonen Ideien doktrina baliatu. "Ideiak" Jainkoaren adimenean kokatu, dena uler dezake Jainkoak bere Ideien menpe dagoelako: errealitatea Jainkoari egokitzen zaio.
- Horrela azaldu Agustinek kreaioa → dena Jainkoak ezerezetik sortua da. Jainkoak kreatu du materia, denaren hazia jarriz.
- Kreaioak zalantza batzuk sortu: zer zegoen aurretik?... Erantzuteko → denboraren doktrina garatu. Mundua sortu aurretik ez zegoen denborarik, ez zegoen lehenaldi, orainaldi, etorkizunik. Agustinentzat denbora ez da existitzen, ez dago iragan ezta etorkizunik; bakarrik orainaldia. Betiereko orainaldia (Jainkoa ere betiereko orainaldian bizi da). Denbora bakarrik gure buruan dago, iragana gure oroimenean eta etorkizuna aurreikus dezakegunean.

## 3. ARIMAREN DOKTRINA

Agustinen helburu filosofikoa → Jainkoa eta arima ezagutzea. Biak elkarlotuta daudelarik.

- Jainkoaren inguruko ezagutza lortzeko, ezinbestekoa gizakiaren inguruko ezagutza. Gizakiak bere barnean bilatu behar, Jainkoarengana heldu ahal izateko.
- Bi substantzia banatu: gorputza eta arima. Ezberdinak dira baina osotasun bat osatu gizakiarengan.

- Ontologikoki arimak du lehentasuna izpirituala, askea, hilezkorra eta gorputz-gabea delako, eta horregatik Jainkoaren antz handiagoa du. Arimarengan 2 maila:
  1. Behe maila: animaliek ere badutena, gurputzari bizi ematen diona eta errealtate aldakorren ezagutza lortzeko baliagarria.
  2. Goi-mailakoa: Beste izakiengandik desberdintzen duena gizakia, hilezkorra dena, bere helburua Jainkoaren ezagutza da.
- Arima Jainkoak sorturikoa da, gorputzarekin batera. Arimaren sorreraren inguruan 2 doktrina:
  1. Berehalako sorrera → Jainkoak banaka eta gorputz bakoitzean sortu arimak.
  2. Traduzianismoa → Norbere gurasoek sortu doktrina.
    2. arekin jatorrizko bekatuaren transmisioa hobeto azaldu; baina 1<sup>a</sup> nahiago du.

#### **4. EZAGUTZA ETA ZORIONTASUNA**

Agustinen helburu etikoa → giza zoriontasuna

- Zoriontasuna jakituriari lotuta → Jakintsua Jainkoa ezagutzen duena da, beraz, Jainkoa ezagutzen duen gizakia zoriontsu izango da.
- Nola ezagutu dezake gizakiak Jainkoa?
  1. Aurre egin zion eszeptizismoari. Eszeptikoen tesia "ez dago ezagutza ziurrik" autodeuseztatzailea da, ezer ziurtatu ezin bada ezin da tesi hori ziurtasunez esan + "si fallor sum" argudioaz azaldu huts egiten bada, badakigula behintzat huts egin dugula edo zalantza dugula, badakigularik ziurtasunez existitzen garela.
  2. Onartuta ezagutza posible dela → ezagutzaren bidea zehaztu behar da.

Gizakia bere arima eta gorputzak osatzen dute, eta biek dute zer egin ezagutza prozesuan. Gorputzak zentzumenen bidez kanpo errealtatearen inguruko informazioa ematen digute, beharrezko pausua dena baina oraindik ere ez dena benetako ezagutza, arimaren eragina ezinbestekoa da.

Arimari dagokion ezagutza garrantzitsuagoa da. Arimaren baitan bi maila bereizten ditu: behe-maila kanpo errealtateari daogkio, zientziari; eta goi-mailakoak jakituriara garamatza. Agustinen arabera Jainkoa gure barnean topatu behar dugu, eta gure arimak betierekoak, unibertsalak eta beharrezkoak diren egietara garamatzanez, badakigu hori ez dagoela gizakiaren menpe, Jainkoarengandik etorri behar da. Jainkoak ideia horiek eman dizkio gizakiari arrazoimena argitzeko (Platonen alegoriarekin antzekotasunak).

#### **5. GAITZA, ASKATASUNA ETA GRAZIA**

##### **Gaitza**

- Gaitzaren auzia kezka handia Agustinentzat, edonon dagoelako.
- Bi gaitz mota desberdinu: fisikoa (gaixotasuna, lurrikara...) eta morala (gaiztakeria, krimena...)
- Gaitza zer den azaltzeko garai batean Agustinek manikeismoa jarraitu zuen, baina gero hau ukatu. Erantzun berria emateko agerkundetetik abiatu → Guztia sortu du Jainkoak, eta izaki onena izanik ez du ezer txarrik sortu, eta aldi berean bera da sortzaile bakarra. Horregatik Plotinoren argudioa baliatu gaitza azaltzeko → berez gaitza ez da ezer, ona denaren erabilera okerra da, harmonia falta. Jatorria gizakiarengan dago, askatasunaren erabilera okerrean.

##### **Askatasuna**

- Gizakia askea da bere ekintzen jabe delako. Gizakiaren helburua zorientasuna denez, helburu hori eskuratu nahi izatekotan, Jainkoarengana hurbildu behar da, urruntzekotan bekatuan erori eta ez da zorientsu izango.

### Grazia

- Gizakiak erabaki dezake Jainkora hurbildu ala ez (salbatu ala kondenatu), eta Jainkoak badaki zer egingo duen gizaki bakoitzak.
- Jatorrizko bekatutik gizakiaren joera txarrarekikoa da. Eta Jainkoaren graziak beti salba dezake gizakia, baina Jainkoak ez dio grazia guztiei ematen. Hortaz ezin da jakin bakoitzaren patua ea den salbazioa edo kondena.

## 6. JAINKOAREN HIRIA

Hasiera eman zion historiaren filosofiari "Jainkoaren hiria" obraren bidez.

- "Historia lineala"ren kontzeptua sortu. Historia ez da ziklikoa, gertaera bakoitzak bere arrazoia du prozesu historikoan, helburuen arabera ulertu behar dira gertaera historikoak.
- Historiarekiko interesa pizten zaio Alarikoren godoek Erroma arpilatzerakoan, izan ere, paganoen ustez kultu kristauak paganoei ezarritako abolizioaren ondorio izan zen. Horri erantzuna emateko idatzi zuen obra hau.
- Gizakiak gaitza sortu arren, eta Jainkoaren obra oztopatu arren, Jainkoaren erresuma gauzatu egingo da, gaitza betirako desagerraraziz.
- Jainkoaren hiria (Jerusalem) eta Munduko hiria (Babilonia) konparatzen ditu, lehenengoa Jainkoak erakartzen du eta bere amaiera zeruan dago, eta bigarrenak, bekatuak, eta bere amaiera infernua dago.
- Jainkoaren hiria berez ez dago munduan, ideal bat da. Historiaren amaieran Kristo lurrera jeitsi eta gizakia epaituko du. Kristau zintzoak salbatuz eta gainontzekoak kondenatuz.
- Paulo Tarsokoaren predestinazioaren doktrina muturrera eramaten du. XI. mende geroago Kalbinek Agustinen predestinazioaren doktrina muturrera eramango duen bezala.
- Beste auzi filosofiko batzuk ere lantzen ditu obran → giza hilketaren inguruan, suizidioa kondenatuz; gerren inguruan, gerra justuak eta injustuak ezberdinduz, besteak beste.

## III. ESKOLASTIKAREN GAILURRA: TOMAS AKINOKOA

1. MENDEKO ESKOLASTIKA ARISTOTELIKOA
2. ARRAZOIMEA ETA FEDEA. JAINKOAREN EXISTENTZIAREN BOST BIDEAK
3. METAFISIKA ARISTOTELIKOAREN KRISTAU-EGOKITZAPENA
4. EZAGUTZAREN TEORIA. AVERROISMOAREN KONTRA
5. ETIKA ARISTOTELIKOAREN KRISTAU-EGOKITZAPENA
6. JOAN DUNS ESKOTO. IZATE UNIBOKOA
7. GILEN OCKHAMGOA. ENPIRISMO ERRADIKALA

### 1. MENDEKO ESKOLASTIKA ARISTOTELIKOA

- XIII. mendean, Averroes eta Maimonidesen eskutik Aristotelesen obra berreskuratu zen → honen eragina Europa osora zabaldu zen, Eskolastika bere gailurrera iristea ahalbidetuz. Hemen funtsezkoa izan zen mende honetan sortu ziren Europako unibertsitateak. Honek ezaugarritu XIII. mendea.

- Garai honetan eskeko ordenak sortu ziren: Frantziskotarrak eta domingotarrak, pentsamenduaren garapenean parte hartu zuten.
- Aristotelesen eragina bi norantzakoa: batetik, eragin handia; bestetik, aristotelismoa eta kristau doktrina ezkontzea zaila zenez, retisentzia handiak sortu zituen, pentsalari asko eskolastikaren oinarrietara itzuliz.
- Pentsalari ezberdinak:
  1. Buenaventura → fedearen egia eta arrazoimenaren egia ezberdin zituen. Lehentasuna fedearenei emanaz. Frantziskotar honen arabera filosofiatik ezin da Jainkoa ezagutu.
  2. Alberto Handia domingotarra → Aristotelesen filosofia kristautasunarekin bateratzen saiatu zen. Aristotelesen natur filosofiatik abiatuta Teologia eta filosofia desberdin zituen, bere ustez Aristotelesen obra naturari buruzko sistema osoa delarik.
- Testuinguru honetan natura eta logikaren inguruan aurrerapen handiak ezagutu ziren.
- Pentsalari garrantzitsuena → Tomas Akinokoa. Bere obra eskolastikaren gailurra izan zen.

## **2. ARRAZOIMEA ETA FEDEA. JAINKOAREN EXISTENTZIAREN BOST BIDEAK**

Kristau-fedea eta pentsamendu filosofikoa elkartu zituen.

- Tomasen arabera Jainkoa bi modutan agertzen da, arrazoia eta fedearen bidez. Bide bakoitzak bere egia ditu. Fedeari dagozkion egia Jainkoak gizakiari zuzenean emanikoak dira, egia hauek ezin dira arrazoiak eskuratu. Egia hauek dira garrantzitsuenak, eta arrazoimenaz frogagarriak izan daitezke. Horregatik arrazoiak froga daiteke Jainkoaren existentzia. Arrazoia zein fedea Jainkoarengandik datozenez, guztiz bateragarriak dira.
- Horrela Averroesen pentsamendutik aldendu.
- Hala ere, bi egia ezberdinetara heltzen bagara, beti da arrazoia oker dabilena. Bateragarriak diren arren, fedearen menpe dago arrazoia (teologiaren menpe filosofia). Giza arrazoiak mugak ditu, arrazoi hutsaz seguraski ezingo genuke Jainkoa ezagutu, eta iristekotan ezjakintasuna izango genuke. Horregatik fedea aldarrikatzen du, fedeari esker arrazoimenetik haratago dauden ongietara bideratu daiteke gizakia. Zoriontasunerako ezinbestekoa da fedea.
- Agerkundearen teologia eta natur teologia desberdin zituen, lehen aldiz filosofia kristauaren baitan. Zenbait egia teologiko soilik fedearen bidez ezagutu daitezkeelako. Hauen artean 3 aztertu: *Jainkoaren trinitatea, Kristoren berrargiztatzea eta mundu sortuaren hasiera*. Beste egia batzuetara ordea, fedea eta arrazoiak hel daiteke, adib: *Jainkoaren existentzia eta Jainkoaren atributuak*.
- Jainkoaren existentzia arrazionalki frogatzen saiatzen da (Jainkoaren existentzia nabaria den arren berarentzat, ez gizaki guztientzat) → garatzen dituen argudioak *a posteriori*koak dira, eta bost bide garatu zituen, denak egitura beraz: esperientziatik abiatuta + kausen katearen bidez, lehen kausa Jainkoa dela ondorioztatuz
  - 1) Munduan mugimendua dago, mugimendu orok bere kausa du, kausen katea amaigabea ez denez kausa geldirik behar du: Jainkoa.
  - 2) Izaki guztien existentziak kausa bat du, kausen katea amaigabea ez denez kausarik gabe izaki bat egin behar da: Jainkoa
  - 3) Munduko izakiak kontingenteak dira, beste izaki batengandik datorkie bere errealitatea, kausen katea amaigabea ez denez, beharrezkoa den izaki bat egon behar da: Jainkoa.

- 4) Munduan perfekzio-maila ezberdinak daude, konparazioan guztiz perfektua den izaki bat beharrezkoa da: Jainkoa.
- 5) Denak du helburu baterako joesa, helburuen kausen katea amaigabea ez denez, helbururik gabeko azken helburu bat egon behar da: Jainkoa.
- Jainkoaren atributuak ere horrela zehazten ditu → Jainkoa betierekoa, orojakilea, ahalguztiduna eta ongura da.

### **3. METAFISIKA ARISTOTELIKOAREN KRISTAU-EGOKITZAPENA**

- Tomas Akinokoaren metafisika Aristotelesen kontzeptu eta pentsamenduaren inguruan oinarritu zuen. Baina bere helburua eta abiapuntua doktrina kristaua zen. Horregatik kontzeptu batzuk kristautu zituen (*materia eta forma, potentzia eta egintza, substantzia eta akzidentea, lau kausa eta kategorien doktrina*), kristautasunarekin bat ez zetozenak alboratu zituen + aristotelismoarekin kontrako doktrina kristauak onartu zituen. Garrantzitsuena doktrina kristaua.
- Garrantzitsua Aristotelesengandik hartzen duen esentzia eta existentziaren bereizketa, doktrina kristaua babesteko → Honekin munduaren jainkozko sorreraren doktrina defendatu. Esentziak objektuaren definizioak adierazten duena biltzen du, bere oinarritzko ezaugarriak (objektu hori izateko ezinbestekoak direnak). Baina objektu baten esentziak ez du zuzenean objektu horren existentzia inplikatzeko. Esentziatik existentziarako pausua, potentziatik egintzarako pausua Jainkoa da.
- Aristotelesen sistemari potentzia materiarekin eta egintza formarekin identifikatzen du, potentzia den materia formarekin eginarazten da. Baina Tomasek potentzia materia eta formak (biekin) osatzen duen esentziarekin, eta egintza existentziarekin identifikatzen du. → Horrela objektuen existentziaren kausa Jainkoa Tomasentzat.
- Jainkoarengan esentzia eta existentziak bat egin. Horrek bat egiten du bibliarekin. Jainkoa esentzian da, ez dago existentziaren potentziarik.
- Honek aldaketa sakona Aristotelesen pentsamenduarekin. Arist-entzat denak du substantzia, baina Tomasek haustura gaindiezina ezartzen du → Batetik, Jainkoa dago (substantzia =existentzia) , eta bestetik, gainontzeko izakiak, kontingenteak direnak, bere existentzia Jainkoari esker dutelako. Horrela Jainkoaren izaera transzendentala azpimarratzen du.
- Tomasen ontologian → *izan* kontzeptua errealitate oso ezberdinei aplikatu ahal zaie, horregatik esanahi analogoa edo antzekoa du (eta ez unibokoa edo ekibokoa).

### **4. EZAGUTZAREN TEORIA. AVERROISMOAREN KONTRA**

Tomasen ezagutzaren teoria → aristotelismo antiaverroista.

- Averroesek → arimaren hilezkortasuna ukatzen du + gizakiek adimen unibertsal bat partekatzen dutela aldarrikatzen du. Tomasek biak ukatu.
- Tomasek → kristau-doktrinari oinarrituta, gizakiaren arima hilezkorra da eta adimena gizabanakoaren arimari loturiko ahalmena da.
- Aristotelesen oinarrituta bi adimen bereizten ditu gizakiarengan, biak dira gizakiaren ahalmenak: ekilea, abstrakzioaren bidez kontzpetu unibertsal eta egia beharrezkoak osatu eta ulertzeko ahalmena; eta harkorrak, lortutako ezagutza gordetzen duena.
- Abiapuntu enpirista ere onartu. Gizakiarengan ez baitago jaiotzetiko ideiarik, horregatik ezagutzaren lehen pausua zentzumeneko esperientziatik abiatzen da. Baina hau ez nahikoa, kontzpetuak osatu

ahal izateko adimen aktiboa behar da; horrela zentzumen hutsaz soilik ulergarria ez dena, *potentzian ulergarria* dena, abstrakzioaren bidez *egintzan pentsagarriak* bihurtzen dira.

Hori da gizakia beste bizidunengandik ezberdintzen duena.

- Abstrakzio prozesua ematen da arimak gorputzaren forma duenez, gorputz fisikoen forma ezagutzeko gaitasuna du, horrela arimaren gorputzaren formaren abstrakzioa egiten du. Finean, adimen aktiboaren bidez gauza material partikularretatik forma unibertsala sortzen du, materiaen forma ezagutzea ahalbidetuz. Forma hauek ez dute pentsamenduaren kanpo errealitatek.
- Forma unibertsala ateratzerakoan materia zehatza bazterten da, unibertsala delako giza ulermenak ezagutzen duena. Abstrakzio-prozesu honek ezagutzaren egia bermatzen du, ulermenak ezagutzen duena unibertsala eta gauzaren forma errealitate bera direlako.
- Tomasentzat ulermena da gauzara egokitzen dena.

## **5. ETIKA ARISTOTELIKOAREN KRISTAU-EGOKITZAPENA**

Tomasen etikan Aristotelesen Nikomakorentzako Etikaren eragin nabarmena, hau gaintzen duelarik.

- Etikaren abiapuntua Aristotelesena → bizitzaren helburua zorientasuna da. Zorientasuna ez da plazeran, aberastasunean edo ohorean oinarritzen, bertutearen arabera ekintzan baizik. Zorientasun gorena Jainkoa begiestea da.
- Tomasen ekarpen baliotsuena → giza ekintzaren inguruko ikerketa. Aristotelesen *borondate* eta *ekintzarako aurreikuspen* kontzeptuez gain, *asmo* kontzeptua gehitzen du. Asmoaren eta ekintzaren balio etikoaren arteko harremana aztertzen du.
- 3 ekintza mota desberdintzen ditu: berez helburuak direnak, baliabideak direnak helburua lortzeko eta ekintzen ondorioa direnak. Lehenengo biek asmoa dute, 3ak ez.
- Beste 3 ekintzak mota ezberdin banatzen ditu: onak, txarrak eta axolagabeak. Ekintza bat ona izateko bere generoa ez da txarra izan behar, zirkunstantziak egon izan behar dira eta asmoa bertutetsua izan behar da. Hiruetako bat betetzen ez bada, ekintza txarra da.
- Bertute eta bizioari dagokionez → Aristotelesen etikari jarraitzen dio, aldaketa eta hobekuntzak gehituz. Bertutea zuzen bizitzeko, ongia egiteko joera edo ohitura da. Bertuteen artean intelektualak/dianoetikoak eta moralak desberdintzen ditu. Bertute moralak greko kardinalak dira (zuhurtzia, zuzentasuna, neurritasuna eta sendotasuna), baina bertute horiez gain bertute teologalak beharrezkoak dira: fedea, karitatea eta itxaropena alegia.

## **6. JOAN DUNS ESKOTO. IZATE UNIBOKOA**

- XIII. mendeko filosofo gehienek ustez posible da arrazoiak eta fedea bat egitea. Baina XVI. mendean eskolastika honi kritika zorrotza egiten zaio, eskolastika deuseztatuz: kristau-dogma ezin da arrazoiean oinarritu, fedea eta arrazoiak banatzen dutelarik.
- Kritika sakonenak Oxfordeko unibertsitateko frantziskotarrek egin zituzten (mende honetan eskolastikaren hegemonia Paristik Oxfordera aldatu zen). Gainera eskolastikaren aurkako mugimendu batzuk ematen dira: averroismoa, korrante mistikoa eta zientzia berriaren hastapenak. Honekin eskolastika amaitutzat ematen da, batez ere bi autoreren eskutik: Joan Duns Eskoto eta Gilen Ockhamgoa.
- Joan Duns Eskotoren abiapuntua aristotelikoa, baina antitomista dela esan daiteke. Bere helburua ez delako filosofia kristautzea (Tomasek bezala) → Aristotelesen prozedura zientifikoaz zientzia autonomo eta beharrezkoa lortu nahi du.



- Fedea eta arrazoiaren arteko haustura erradikala planteatzen du, bakoitzari gune propioa eskainiz. Fedeari gune praktikoa, bere zientzia teologia delarik. Filosofiar gune espekulatiboa, bere zientzia metafisika delarik.  
Ezagutza zientifikoa mugatua da, horregatik fedearen beharra du. Arrazoiak soilik ezin du Jainkoaren erabaki askea eta bere ondorioa ezagutu. Horrela eskolastikako fedea-arrazoia auziari konponbide bat eskaintzen dio.
- Metafisika → Tomasen abiapuntuaren kontra egiten du, bere ustez: *izan* kontzeptua errealitate desberdinei aplikatu ahal zaie eta esanahi asko ditu bere sistema ontologikoan, horregatik berarentzat ez da ez unibokoa ez ekibokoa, analogoa baizik.  
Eskotorentzat ordea *izan* kontzeptua unibokoa da, adiera bakarrekoa, eta bere baitan kategoria aristotelikoen menpe dagoen guztia sartzen da, Jainkoa baita ere. Horregatik *izan* kontzeptua transzendentala da, kategoria ontologiko guztien gainean dagoena, eta beti du esanahi bera. Hori ezinbestekoa da Jainkoa ezagutzeko, eta *izan* kontzeptuaren unibokotasunean dago Jainkoaren existentziaren froga.
- Jainkoaren existentzia frogatzeko ezin da errealitate materialetik abiatu, bestela ondorioztatuko litzatekeelako ez dagoela Jainkorik errealitate material eta kontingentetik haratago.
- *Izan* kontzeptuaren modu ezberdinak ezberdintzen ditu → Lehenengo *izan* mugatua eta mugagabea ezberdintzen ditu; eta bigarren, *izan* litekeena eta beharrezkoa.  
Honen baitan, Jainkoaren existentzia frogatzeko, lehen kausa bat behar dela frogatu behar da eta gero hori existitzen dela frogatu. Frogapen horrek *a posteriorikoa* izan behar du, izate unibokoa du bere abiapuntua (ez Jainkoan), baina ez da mundu materialetik abiatu behar. Ondorioetatik kausetara doan frogapena izan behar da. Horregatik argudioa *lehentasun beharrezkoan* oinarritzen da: ha kausa eragileari, helburuaren kausari eta perfekzio-mailari dagokio.  
Behin frogatuta kausa lehena litekeena dela, lehen huraren existentzia frogatu behar da.  
*Lehen*-aren existentzia litekeena bada, lehen kausa bada ezin du ezerk oztopatu, horregatik beharrezkoa da. Gainera mugagabea da, ez dagoelako ezeren menpe. Jainkoa mugagabea da, perfektua delako. Jainkoaren mugagabetasun horretatik abiatuz, bere borondateaz, bere esentzia propiotik gauzen esentzia sortzen du, mundua sortuz.
- Ezagutzaren teoria → Aristotelesi ere jarraitzen dio. Bi ezagutza mota bereizten ditu: intuitiboa eta abstraktua. Intuitiboa aurrez aurre dauden objektuena, eta abstraktua objektuen esentziaren (zientziari dagokio).  
Esentzia munduko objektu banako eta pentsamendu unibertsalen arteko errealitate erkidea da. Esentzia ez da ez substantzia ez unibertsala, baina bien oinarria da.  
Banakotzearen printzipioa proposatu zuen, planteamendu honekin Aristotelesengandik urrunduz. Printzipio hau *haecceitas (honakotasuna)* osagaiari dagokio. Natura erkide bera duten errealitateak indibiduoak izan daitezke, baina errealitate formal ezberdinak osatzen dute, berdinak balira gizaki bera izango liratezkeelako. Horrela onartzen du banakoei buruzko ezagutza egon daitekeela, *haecceitasaren* bidez ematen dena, hau baita errealitate banakoaren printzipio ulergarria.

## 7. GILEN OCKHAMGOA. ENPIRISMO ERRADIKALA

Esan daiteke berarekin amaitu zela eskolastika. XVI. mendean eskolastika bere helburuak bete gabe zegoen, eta testuinguru honetan agertu Gilen Ockhamgoa. Teologia, metafisika, epistemologia eta antropologia tradizionala suntsitzen du, nolabait hasiera emanaz pentsamendu modernoari.

- Ockhamen ustez, arrazoimenak eta fedeak gune propio eta bateraezinak dituzte. Arrazoiaren eremua natura da, eta filosofia esperientziatik egin behar da, ez du Jainkoaren auzia aztertu behar.
- Bere filosofiaren ezaugarri garrantzitsua → enpirismo erradikala. (eragina Locke eta Humerengan) Eskolastikan garatutako pentsamenduaren aurka baliatzen du. Bere ustez Jainkoaren existentziaren argudioek ez dute ezer frogatzen, edozeren existentzia esperientzia intuitiboaren bidez soilik bermatu daiteke, eta gizakiak ezin du Jainkoaren ezagutza esperientzia intuitiboaren bidez bermatu, beraz, bere atributuena ezta ere.
- Eskolastikako kontzeptu metafisikoak ere ukatu zituen → esentzia eta existentzia, substantzia eta akzidenteak, materia eta forma, eta kausa eta efektua ere adibidez. Tradizio eskolastikoaren arlo hau suntsitzearekin batera, giza-arimaren auzia (espiritua eta hilezkorra dena) ere kolokan jarri zuen.
- Enpirismoaz → naturarekiko jarrera berri bat ekarri. Fisika aristotelikoa zalantzan jarri zuen, berarentzat esperientzian frogatu behar direlako printzipioak. Horregatik, bi ezagutza bereizi zituen: abstraktua, ideien arteko loturari dagokiona da, baina bermatu ezin direnez, ezagutza intuitiboa beharrezkoa da; eta intuitiboa, existentziari buruzkoa dena, egia eta errealitatearen ezagutza dakarrena.
- Gertaeren ezagutzarako ezagutza intuitiboa beharrezkoa da → honen baitan ulertu *Gilen Ockhamgoaren labana*. \**"Ezinbestekoa ez bada, munduko errealitateak ez dira ugaritu behar" eta "esperientziak bermatzen ez badu, ez da errealitate baten existentzia onartu behar"*. → Printzipio horretatik aurretiko teologia eta metafisika alboratzen du.
- Ezagutza intuitiboan indukzioaren bidez proposizio partikularretatik unibertsalera jauzi egiten da. Baina kontuan hartuta Gilen Ockhamgoak enpirismo erradikala babesten duela, azaltzen du existitzen diren errealitate bakarrak banakoak direla, eta unibertsalak gogamenean daudela. Horrela Eskotoren pentsamendua ere ukatzen du.
- Ezagutza posible da *suppositio* kontzeptuaren bidez. Zientziaren proposizioetarako baliatzen diren unibertsalek edo kontzeptuek esanahia dute objektua adierazten dutelako. Kontzeptuaren funtzio horri deitzen dio *suppositio*. Eako unibertsalen inguruko eztabaidan nominalistekin kokatzen da, bere ustez gogamenetik kanpo ez dagoelako natura erkiderik.
- Banakoak genero eta espezieetan sailkatzearen inguruan → abiapuntua banakoa da, banako bakoitza denetik abiatzen da. Horrela adibidez Platon eta Sokrates ezpezie berekoak dira biak direna antzekoak direlako: gizakia. Gizakia eta txakur bat ere antzekoak dira, baina beste modu batean, horregatik dira genero berekoak: animalia. Gizakia, animalia... bezalako kontzeptuak izen hutsak dira, banakoak ordezkatzeko dituenak.